

PRENTSA OHARRA

2018/11/30

## **Batzarretako taldeek 676 zuzenketa-eske aurkeztu ditue 2019ko Bizkaiko Aurrekontuen aurrean**

Bizkaiko Batzar Nagusietako taldeek 676 zuzenketa-eske aurkeztu ditue 2019. urterako Bizkaiko Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokor Proiektuaren aurrean. Kontu horreek batzarretako tramitazioan dagoz Bizkaiko Batzarretan, joan dan urriaren 31n erregistrau ziranetik. Igaz baino 23 zuzenketa-eske gehiago dira.

2019ko aurrekontuen zenbateko osoa 8.216,7 milioi eurokoa da, eta horreetatik 1.253,3 milioi sailek erabili daikien kopurua da.

Batzarretako talde bakotxari jagokonez, eta Foru Gobernua eusten daben talde bietatik hasiz, Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) eta Euskal Sozialistak (PSE-EE) 8 zuzenketa-eske partzial aurkeztu ditu. Oposizinoak, bere aldetik, 668 zuzenketa-eske aurkeztu ditu guztira. 215 EH Bilduk aurkeztutakoak dira; 241 Podemosek; 137 PPK; eta 75 Talde Mistoak.

2019ko lurraldeko kontuen aurrean aurkeztu diran zuzenketa-eskeak holan banatzen dira sail bakotxaren aurrekontuen testuen artean: Euskera eta Kultura sailak 86 zuzenketa-eske jaso ditu; Enplegu, Gizarte Inklusio eta Berdintasun sailak 95; Iraunkortasun eta Ingurune Natural sailak 101; Gizarte Ekintzak 78; Herri Administrazio eta Erakunde Harreman sailak 83; Ekonomia eta Lurralde Garapen sailak 108; Ogasun eta Finantza sailak 49; eta Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesio sailak 60. Gainera, 13 zuzenketa-eske bat aurkeztu dira Foru Arau Proiektuaren artikuluen alderdiren bat aldatzeko, 1 Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundera (GUFÉ) eta beste 2 Udal Finantzaketea aldatzeko.

Orain, Bizkaiko Foru Batzarretako mahaiak datorren astean aztertuko ditu zuzenketa-eskeak, osotasuneko zuzenketa-eskeak eztabaidetako eta bozkatzeko osoko bilkurarako deialdia egin aurretik, seguruenez datorren abenduaren 12an Gernikan egingo dan saioan. Osoko horren ostean, beharrezkoa bada, zuzenketa-eske partzialak eztabaidatuko dira batzordean. Eta Batzarretako izapidetzeari bukaerea emoteko, azkenengo osokoa egingo da, eta bertan, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean erreserbetan diran zuzenketa-eske partzialak aztertuko dira.

NOTA DE PRENSA

30/11/2018

## **Los grupos junteros presentan 676 enmiendas a los Presupuestos de Bizkaia de 2019**

Los grupos de las Juntas Generales de Bizkaia han presentado un total de 676 enmiendas al Proyecto de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2019, cuentas que se encuentran en trámite parlamentario en la Cámara foral vizcaína desde su registro el pasado 31 de octubre. Superan en 23 enmiendas a las presentadas el año pasado.

El Proyecto de Presupuestos de 2019 incluye un montante total de 8.216,7 millones de euros, de los que 1.253,3 millones corresponden al disponible departamental.

Por grupos junteros, y empezando por las dos formaciones que sustentan la labor del Gobierno foral, los grupos Nacionalistas Vascos (PNV) y Socialistas Vascos (PSE-EE) han presentado, de manera conjunta, 8 enmiendas parciales. Por su parte, la oposición ha entregado un total de 668 enmiendas. De ellas, 215 son de EH Bildu; 241, del grupo Podemos; 137, del PP; y 75, del grupo Mixto.

El plazo de presentación ha concluido hoy y la distribución de las enmiendas por departamentos ha quedado distribuida de la siguiente forma: el área foral de Euskera y Cultura acumula 86 correcciones; Empleo, Inclusión Social e Igualdad, 95; Sostenibilidad y Medio Natural, 101; Acción Social, 78; Administración Pública y Relaciones Institucionales, 83; Desarrollo Económico y Territorial -el área que más registra-, 108; Hacienda y Finanzas, 49; y Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio, 60. Además, existen 13 propuestas para modificar algún aspecto del texto Articulado del Proyecto de Norma Foral, 1 enmienda relativa al Instituto Foral de Asistencia Social (IFAS) y otras 2, piden cambios en la Financiación Municipal.

La Mesa de la Cámara foral vizcaína procederá ahora al análisis de las enmiendas como paso previo a la convocatoria de una sesión plenaria para debatir y votar primeramente las enmiendas a la Totalidad en un pleno que se celebrará el 12 de diciembre en Gernika. Tras esta sesión, en su caso, se debatirán las enmiendas parciales en comisión. Y el trámite presupuestario finalizaría con un último pleno, que analice las enmiendas parciales que se reserven en el seno de la Comisión de Economía y Hacienda.